



Sorluze
Placencia de las Armas

Sorluzeko Baliabide Gida

Guía de Recursos de Sorluze

(ARABIERAZ)



2012KO ABENDUA
DICIEMBRE DE 2012
(arabieraz)

ORRI !!!

BALIABIDE GIDA honek, Soraluzeko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailak argitaratua, argitalpen baliagarria izan nahi du kanpotik zatozten guztiontzat, Soraluzeko herria eta inguruak hobeto ezagutzeko beharrezko duzuen informazio praktikoa zeuen eskura jarritz.

GIDA honek hurrengo gai hauei buruzko informazioa eskuratzen lagunduko dizu: Erroldatzea, Osasun Laguntza, Hezkuntza, Garraioa, Etxebizitza, Aisialdia, Emakumeei Laguntza, etab.

GIDA honetako informazioa gaur egungoa da. Bertan azaltzen diren datuak, denbora pasa ahala, aldatzen joan daitezkeenez, komenigarria izango duzu aurrez egiaztatzea.

Gure artean gustura egotea espero dugu eta Soraluzen bizi zaren denboran baliabide guztiak ezagutu eta behar bezala erabiltzea.

HIART ARLUZIAGA ARIZNABARRETA ALKATEA



LEHEN URRATSA: ERROLDATZEA

Udalerrri honetan bizi nahi duen pertsona orok, salbuespenik gabe, Soraluzeko Udalaren herritarrentzako arreta bulegoan eman behar du izena, Osasun Txartela eskatu, Gizarte Zerbitzuen laguntza jaso edota eskolaratu ahal izateko.

Garrantzitsua: Europako Erkidegokoa ez den atzerritarrak, iraupen luzeko egoitzabaimenik ez badu, bi urtero berritu beharko du Udal-Erroldan izen ematea, idatziz eskatuta.

OSASUN LAGUNTZA

Osasun-Txartel Indibiduala (O.T.I.)

Sistema publikoko laguntza medikoa jasotzeko behar-beharrezko agiria da. Soraluzeko Kalebarreneko 13. zenbakian kokatutako osasun-zentroan eskatzen da, baina horretarako udalerrian erroldatuta egon behar da. Osasun-zentroan emango dute txartela eskuratzeko informazioa.

Ohiko Laguntza Medikoa

Sistema publikoko ohiko eta doakoa laguntza medikoa, lehen mailako arreta zerbitzuan eskaintzen da lehendabizi. Hemen gaixoa tratatzen da eta, behar izanez gero, sendagile espezialista batengana bidaltzen da. Beharrezkoa da Osasun-Txartel Indibiduala (OTI) edukitzea.

Soraluzeko Osasun-Zentroaren ordutegia 8:00etatik 15:00ak artekoa da eta ALDEZ AURREKO HITZORDUA behar da.

Larrialdietako Laguntza Medikoa

Larrialdietako laguntza medikoa edozein pertsonak jaso dezake, osasun-txartel indibidualik (OTI) ez badu ere.

Larrialdiak Elgoibarren edota Mendaron artatzen dira, orduaren arabera:

- Elgoibarko osasun-zentroa: astelehenetik ostiralera 17:00etatik 24:00etara.
Larunbat eta igandeetan 8:00etatik 24:00etara.
- Mendaroko ospitalea: 24:00etatik 8:00etara.



Kalebarren, 13
Tfnoa.: 943 752 300



Elgoibarko Osasun-Zentroa

Bernardo Ezenarro kalea, 13
Tfnoa.: 943 032 610



Mendaroko Ospitalea

Mendarozabal auzoa, z/g
Tfnoa.: 943 032 800
Hitzordua eskatzeko 943 032 894 telefonora deitu.

Doako laguntza mediko publikoa jasotzeko era aldatzen ari da gaur egun Euskal Herrian egoera irregularrean dauden pertsonentzako (**paperik gabeak**).

Gida hau argitaratzen dugun unean, hauxe da egoera (edozein modutan, Soraluzeko Osasun-Zentroan egiaztatzea komeni da).

Egoera irregularrean dauden pertsonak **ondorengo hiru baldintza hauek** bete beharko dituzte doako laguntza medikoa jasotzeko:

- Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea, gutxienez, urtebetean.
- Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (errenta, argindarra, ura) edota Euskal Autonomia Erkidegoan Udalen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bitartez ematen den beste edozein laguntza jasotzea.
- Pertsona batek Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta moduan jasoko lukeena baino diru sarrera txikiagoak izatea.

Jarraian izendatzen diren taldeek **ez dute** zehaztutako hiru baldintzak betebeharririk izango laguntza medikoa jasotzeko horren premia dutenean:

- Haurdun dauden emakumeak. Haurdunaldi osoan artatuko dituzte, bai eta erditze unean eta erditu ostean ere.

- 18 urtetik beherakoak.
- Gaixotasunak dituzten pertsonak eta arreta mediko urgentea eta berehalakoa behar dutenak (Larrialdiak).

Egoera irregularrean dauden pertsonak, Osasun Txartela lortzeko, Soraluzeke Osasun-Zentroan emango dieten galdeketa-inprimaki bat bete beharko dute.

GIZARTE BALIABIDEAK

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak:

Soraluzen erroldatuta dauden pertsonak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bitartez, ondorengo prestazioak eskuratzeko aukera izango dute: diru laguntzak oinarrizko premiei aurre egin ahal izateko, etxez-etxeko laguntza zerbitzua, ezgaitasunak eta mendekotasuna duten pertsonen arreta, tratu txarren biktimei arreta, familia ugariaren eskaera, etab.

Garrantzitsua: Aldez aurreko hitzordua eskatu behar da.

- **OGZ Soraluze**

Santa Ana kalea, 3

Tfnoak.: 943 750 056 eta 943 750 054

HIZKUNTZA OFIZIALAK

Euskal Autonomia Erkidegoak bi hizkuntza ofizial ditu: gaztelera eta euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza. Euskara hizkuntza isolatu bat da eta ez dauka inolako zerikusirik munduko hizkuntza familiekin. Euskara, bizirik dirauen mendebaldeko Europako azken aurreindoeuropar hizkuntza da eta, ondorioz, hizkuntza zaharrena lurralde honetan. Herritar gehienek hizkuntza da eta hauek askorentzat, umeentzat eta nagusientzat bereziki, lehen hizkuntza.

Euskara ikasteko zentroak:

- **AEK Euskaltegia**
Baltegieta kalea, 2
Tfnoa.: 943 751 434

- **Hizkuntza Eskola Ofiziala (Eibar)**
Jardiñeta kalea, 3
Tfnoa.: 943 200 618 / 943 200 648
e-maila: eoieibar@euskaltel.net



H.H.I. (E.P.A.)
Baltegieta kalea, 18
Tfnoa.: 943 753 017

Gaztelera H.H.I./E.P.A.n ikas daiteke. Beste ekintza eta zerbitzu batzuen artean, **atzerritarrentzako gaztelera ikastaroak** eskaintzen ditu.

HEZKUNTZA

Haur eta gazteen heziketa

Haurreskola (0-2 urte). Ume bat haurreskolara eramateko kuota ordaindu behar da. Matrikula urte osoan zehar egin daiteke, tokirik baldin badago. Plaza librerik ez balego, matrikula maiatzean, irailean eta urtarrilean egin behar da. Argibide gehiago haurreskolan bertan eskura daiteke: Frontoi kalea, 1-behea. Tfnoa.: 943 751 132

Haur Hezkuntza (2-6 urte) doakoa eta borondatezkoa da. Argibide gehiago Plaentxi Lehen Hezkuntzako Ikastetxean.

Derrigorrezko Hezkuntza doakoa da guztientzat eta bi ziklotan banatzen da: Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza.

Lehen Hezkuntza (6-11 urte): Derrigorrezkoa da. Argibide gehiago Plaentxi Lehen Hezkuntzako Ikastetxean.

Bigarren Hezkuntza (12-16 urte): Derrigorrezkoa da. Argibide gehiago Soraluze Bigarren Hezkuntzako Institutuan.

Soraluzen hurrengo ikastetxeak daude, jangela zerbitzuarekin biak:

- **Plaentxi LHI**

Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea (2-12 urte)

Eztaziño kalea, 11

Tfnoa.: 943 751 937

- **Soraluze BHI**

Bigarren Hezkuntzako Ikastetxea (12-16 urte)

Frontoi kalea, 3

Tfnoa.: 943 752 365

Lanbide Ikasketak

Lanbide-Heziketako ikasketak egiteko hainbat ikastetxe dago inguruko herrietan. Argibideak: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net helbidean.

Pertsona Helduen Heziketa (H.H.I.)

H.H.I.k formakuntza-egitarau zabala eskaintzen du 18 urtetik gorakoentzat (alfabetatzea, bigarren mailako hezkuntza gradua, euskara, informatika...).

Atzerritarrentzat gaztelera ikastaroak ere ematen dira.



H.H.I.

Baltegieta kalea, 18



Tfnoa.: 943 753 017

LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzua

Lanbidek lana bilatzeko prozesuan laguntza eta orientabidea eskaintzen die lanik gabe dauden pertsonei eta, lana izanda ere, enplegua aldatu nahi dutenei.

- **Lanbide Elgoibar** (antzinako Enplegu Institutu Nazionala)
Gabriel Krutzelaegi, 8
Tfnoa.: 943 744 425
- **Lanbide Eibar** (antzinako Enplegu Institutu Nazionala)
Bittor Sarasketa, 9
Tfnoa.: 943 127 288

Enplegurako beste baliabide batzuk:

-  **Zabaltzen-Sartu:** Arregitorre, 6-behea. ELGOIBAR. Tfnoa.: 943 748 597
-  **Kutxa-Zeharo:** Bista Eder, 11. EIBAR. Tfnoa.: 943 820 474

Lan-eskubideak

Lan-harremanean zein kontratuan ezohikotzat eta arrarotzat har litekeen edozein gorabehera (bidegabeko kaleratzea, soldata diskriminazioa, istripu arriskua...) Sindikatuen jakinean jar daiteke, eskubideak erreklamatzeko helburuarekin.

- ❑ Lan-ikuskaritza: Donostia-San Sebastián kalea, 1. GASTEIZ
Tfnoa.: 945 019 317 e-maila: dctrabss@ej-gv.es
- ❑ Sindikatua: langileek osatutako elkartearen beren interesen defentsarako:
CC.OO, ELA, LAB, UGT (EIBAR)
- ❑ Etxeko Langileen Elkartearen: Pelota kalea, 3 (Zazpi Kaleak). BILBAO
Tfnoa.: 944 155 483 e-maila: ath-ele@hotmail.com

ETXEBIZITZA

Babes ofizialeko etxebizitzaren alokairurako zerbitzu publiko bat dago. ETXEBIDE da Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua eta bertan izena eman behar da. Etxebizitza eskaera egiteko nahitaezkoa da: adinez nagusia izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea eta azken urte fiskaleko diru sarrera haztatuak 3.000 eta 50.000 euro artekoak direla egiaztatzea. Eskaerak internet bidez egin daitezke edota eskaera-orria hurrengo lekutik deskargatu.

Betekizunak kontsultatu eta izena ematea::

- ETXEBIDE, ETXEBIZITZAREN EUSKAL ZERBITZUA
Andia kalea, 13
20003 DONOSTIA
Tfnoa.: 012
web orria: www.etxebide.euskadi.net

Soraluzeko Udalak 6 etxebizitza ditu alokairu sozialean emateko eta Udalak zehaztutako irizpideen arabera esleitzen dira. Etxebizitza horiek 2012ko maiatzean esleitu ziren bost urteko eperako.

KULTURA, KIROLA ETA AISIA

Liburutegia

Zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditu: liburu, aldizkari, CD, DVD eta VHS-en mailegua, irakurketa-gela, hemeroteka, internet...

Liburutegiko zerbitzuez baliatzeko, ERABILTZAILE karneta behar da. Liburutegian bertan atera daiteke eta doakoa da.

Soraluzeko Udal Liburutegiko eta beste liburutegi publiko batzuetako katalogoa kontsultatzeko: www.euskadi.net/katalogobateratua



Udal liburutegia

Balategieta kalea, 2

Tfnoa.: 943 752 074

Ludoteka

Tarte libreetan aisia eta euskararen erabilera sustatzeko gunea, 5 eta 12 urte arteko neska-mutikoentzat.



Udal Ludoteka

Balategieta kalea, 2

Tfnoa.: 943 752 074

Internet: Kz Gunea

Internet ezagutzen, sarean murgiltzen eta beste hainbat informatika-aplikazio erabiltzen irakasten dute instalazio hauetan.



Kz Gunea (Soraluze)

Balategieta kalea, 18

Tfnoa.: 943 753 045

Musika Eskola

Musika ikasi nahi duten 5 urtetik gorako pertsonentzako udal eskola.



Musika Eskola

Frontoi kalea, 1

Tfnoa.: 943 751 544

Kiroldegia

Urteko abonua edota unean-uneke sarrera ordaindu behar da. Ekintza eta ikastaro ezberdinak burutzen dira: umeentzako eta helduentzako igeriketa, karate, spinning, pilates eta aerobic, besteak beste.

- **Arane kiroldegia**

Balategieta kalea, 2

Tfnoa.: 943 752 466

Autobusa

Soraluzeko udalerrian autobus konpainia bi ibiltzen dira, Pesa Garraioak eta Euskotren, ibilbide eta ordutegi desberdinekin biak.

Txartel Bakarra pertsonalizatua eta behin eta berriz karga daitekeen txartela da. Lurreldebus osatzen duten garraio-enpresen zerbitzu guztietan erabil daiteke deskontu bereziekin, bai eta etorkizunean sistemara atxikituko diren hiri zerbitzuetan eta tren zerbitzuetan ere. Txartel ezberdinak daude, taldearen arabera: haurrak, gazteak, adinekoak, ezinduak, soziala (gizarte-laguntzak jasotzen dituztenentzat) eta familia ugariak.

Soraluzen ondorengo tokietan eskatu eta kargatu daiteke txartela:

IZENA	HELBIDEA	ERAGIKETA
Postetxea	Santa Ana kalea, 14	Kargatu
Iratxo gozotegia	Etxaburueta kalea, 4	Eskatu eta kargatu
Arceus liburudenda	Etxaburueta kalea, 1	Eskatu eta kargatu
M^a Angeles estankoa	Gabolats kalea, 24	Eskatu eta kargatu
KUTXAko kutxazaina	Gabolats kalea, 1	Eskatu eta kargatu

Autobus lineei, ordutegiei eta txartelak kargatzeko tokiei buruzko argibideak:

web orria: www.lurreldebus.net

Tfnoa.: 943 000 117


e-maila: info@lurreldebus.net

Udaletxean eta Udaltzainguan ere eska daiteke informazioa.

Taxia

Taxi geltokia zubi nagusian kokatuta dago. Tfnoa.: 943 751 993.

Trena

 Soraluzen ez dago tren geltokirik. EUSKOTRENEk eskaintzen du zerbitzurik gertukoena, Eibarren eta Elgoibarren geltokiak ditu eta inguruko herrietara eta Donostia eta Bilbora bidaiak ditu.

Argibide gehiago jasotzeko: www.euskotren.es/es/horarios



Zertxobait urrunago geratzen da RENFEren tren. Zumarragatik (hurbilen geratzen zaigun tren-geltokia) Donostiara eta inguruko herrietara joan daiteke.

Argibide gehiago jasotzeko:

www.renfe.com/viajeros/cercanias/sansebastian/index.html

ETORKINEI LAGUNTZA ETA AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Etorkinei eskainitako doako zerbitzua, euren egoera administratiboaren eta atzerritarren legearen inguruan izan ditzaketen kezkak argitzeko helburuarekin. Informazioa, orientabidea eta aholkularitza emango diote etorkinari eta, hala iritziz gero, zerbitzu espezializatueta bideratuko dute.



Gurutze Gorria Ermua

Gipuzkoa etorbidea, z/g. A-8 autopistaren peaje ondoan.

48260 ERMUA. Bizkaia

Tfnoa.: 943 176 248

e-maila: ermua@cuzroja.es



SOS Arrazakeria

Txara I Eraikina. Zarategi pasealekua, 100-sotoa

20015 DONOSTIA

Tfnoa. 1: 943 245 626

Tfnoa. 2: 943 321 811



900 840 126

Doako telefonoa atzerritarren legeari buruzko zalantzak argitzeko.

e-maila: immigrazioa-asesoria@ej-gv.es

INFORMAZIO GEHIAGO

TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK

Udaleko Gizarte Zerbitzuetan laguntza eska dezakezu. Informazioa eta aholkua emateaz aparte, babes psikologikoa, juridikoa eta ekonomikoa lortzen lagunduko

dizuete. Mehatxuak jaso badituzu edota jaso ditzakezula uste baduzu, babes zaitzatela eska diezaiekezu poliziari edo epaitegiari.

Lesioak izan badituzu, Osasun-Zentro batera joan zaitez, artatu eta osatu zaitzaten. Lesioen jatorria azaldu ahal izango duzu eta ez ahaztu txosten medikoa eskatzea, oso baliagarria izango duzu eta.

TRATU TXARREN BIKTIMENTZAKO ARRETA-TELEFONOA: 900 840 111

Doakoa, isilpekoa, 24 orduko atentzioa, 55 hizkuntzatan. Laguntza emozionala, informazioa eta aholkularitza eskaintzen die tratu txarren biktima diren emakumeei.

LARRIALDIETARAKO TELEFONOA: 112

Larrialdi kasuetan 112 doako telefonora deitu behar da. Eta, kasuaren arabera, bertatik abisatuko diote edota telefono deia bideratuko diote poliziari, anbulantziari, suhiltzaileei, etab.

HERRITARREN SEGURTASUNA ETA JUSTIZIA

- **Udaltzaingoa**
Errabal kalea, 17-behea. Tfnoa.: 943 753 024
- **ERTZAINZA**
Ibargarai kalea, 56. BERGARA. Tfnoa.: 943 534 721

Bake Epaitegia

Santa Ana kalea, 3

Tfnoa.: 943 751 989

Erregistro zibilaz arduratzen da (jaiotzak, ezkontzak, heriotzak) eta zitazioak, jakinarazpenak, errekerimenduak eta deiak egiten ditu.

Ordutegia: Astearte, ostegun eta ostiraletan, 9:00etatik 14:00etara.

Ordutegi honek aldaketan izan ditzake zerbitzuaren gorabeherak direla eta.

CARITAS

Erakunde honek ematen dituen laguntzak eskuratzeko, nahitaez Soraluzen erroldatuta egon behar da hiru hilabeteetan gutxienez.

Helbidea: Kalebarren, 2

